

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familienak) ordaintzeko familientzako 2026ko laguntzetarako deia egiteko Aiarako Udaleko alkateak 2026ko apirilaren 16an emandako dekretuaren laburpena

BDNS (Identif.): 899447.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/899447>.

Lehenengoa: onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean Aiarako udalerrian erroldatuta daudenak, baldin eta, diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiarako udalerrian, eta oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena: xedea

Deialdi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen EAEko edozein udalerrietako udal kiroldegiko bazkide izateagatik, banaka nahiz familian, ordaintzen dituzten 2025eko kuoten gastuak ordaintzen laguntzea, baldin eta jarduera horiek Aiarako Udalak eskaintzen ez baditu.

Ez dira diruz lagunduko instalazioetan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Alkatearen 2026ko apirilaren 16ko 2026-228 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren.

Era berean, dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak jasota daude EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren, zeina Aiarako Udalak onetsi, eta ALHAOn argitaratu baitzen 2020ko urtarrilaren 27ko 10. zenbakian.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 1.000,00 euroekin dago hornituta.

Hau izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerriri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar (30) egun naturalekoa izango da, oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatuta.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak aurkeztu behar dira beteta.

Arespalditza, 2026ko apirilaren 16a

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA